

ZIURTAGIRI ESKAERA

“ETA GU ZER GAUDE PREST EGITEKO INKLUSIOAREN ALDE?”

“Florea ga Salestar Ikastetxea”ren KONPROMEZUA

Florea ga Salestar ikastetxeko komunitatea osatzen dugun guztiok, gure ikasleak bere osotasunean garatzeko ahaleginean oinarritzen dugu gure jarduna, edozein dela beren kondizio, sinismen edo kultura. Bereziki, zentratzen gara babesgabeagoak/zaugarriagoak izan daitezkeenengan; eta, nola ez, dibertsitate funtzional ezberdina izan dezaketen edozein haur edo nerabe, ongietorriak izaten dira beti gurera.

Eskola inklusiboa erreferente izanda badakigu gure eguneroko jardunean alderdi asko kontuan hartu behar ditugula. Izan ere, eskola inklusiboa sare bat da, denon artean eraikia eta guztiontzako eskola aproposa lortzen duena. Zenbat eta alderdi gehiagotatik jardun aldi berean helburu bera lortzeko, hainbat eta sendoagoa izango da gure ahalegina. Hau horrela izanda, sinesten dugu, zuen bide beretik ari garela lanean eta egin ditzakegun hobekuntzetara irekiak gaude. Denon artean, elkarlanean, gizarte sentsibilizatuago baten benetako errealitatea dugu helburu, non guztion ezaugarrienganako, errespetuzko jarrera den oinarri. Era honetara, aniztasunak dakarren aberastasuna indartuz eta gizartean gauzatuz.

Aurten gure ikastetxean, zenbait ekintza burutu izan ditugu dibertsitate mota ezberdinen ikusgarritasuna lantzeko eta datorren ikasturterako baditugu beste batzuk. Hemen dituzue:

- 2018-19 ikasturtea:
 - ✓ DBHko ikasleei zuzendutako ekitaldia Marea Urdineko kideen eskutik.
 - ✓ **Martxoak 21: Down Sindromearen Nazioarteko Eguna.** Egunon bereziak, sentsibilizazio bideoak eta galtzerdi margotzea eta esposatzea.

Hemen erabilitako materiala:

<https://www.youtube.com/watch?v=W8RQnqu60cs&feature=youtu.be>

<https://sites.google.com/site/hezkidetzadbhbmasedaies/efemerideak-efemerides/martxoak-21/sindrome-down-eguna>

<https://youtu.be/Ju-q4OnBtNU>

<https://youtu.be/DDrKejZJXl0>

<https://youtu.be/OnkiORWaQj8>

https://youtu.be/9VguVLLP_4c

Hemen ikusgarri gurean egindako lana:

<https://www.floreaga.eus/2019/03/martxoak-21-down-sindromearen-nazioarteko-eguna/>

- ✓ **Apirilak 2: Autismoaren Nazioarteko Eguna.** Egunon bereziak, sentsibilizazio bideoa geureganatu ikasle talde batek euskaratuz eta beraien ahotsa ezarriz, arropa urdina jantzita ekartzea, ikastetxean infinituaren sinboloa pasilloetan zehar zabaltzea, Autismoaren Nazioarteko Eguna aldarrikatzen duen pankarta ikastetxearen fatxadan dagoen balkoitik behera zintzilikatzea, ikasleak infinituaren sinboloa urdina esku gainean margotzea eta esposatzea. Horrez gain, egun berezi honetan argazki bat atera genuen eta marea urdinekoei bidali genien gure atxikimendua adieraziz.

Erabilitako materiala:

<https://www.youtube.com/watch?v=wex4aLnDZVw>

<https://www.youtube.com/watch?v=PZQ1Pi3mLXY>

https://www.youtube.com/watch?v=7WHPzA_uQjg

<https://diamundialautismo.com/>

Floreagako web orrian ospatutako eguna argitaratzea eta partekatzea:

<https://www.floreaga.eus/2019/04/16633/>

- ✓ Urteak daramatzagu “Gaixotasun arraroei laguntzeko, Solidaritate eta Itxaropena taldea”rekin elkarlanean. Sergio Gómez Videlak zuzentzen duen taldea da eta tapoi solidarioen programan parte hartzen dugu. Hiruhilero etortzen dira gurera tapoiak jasotzera. Pasa den ikasturtean, Vatikanora bizikleta martxa egin zuen bere gaixotasunari ikusgarritasuna eman nahian eta, urtarrilean, hemen izan genuen bere esperientzia ikasleekin partekatzeko. Ekainak 21ean bere proiektuaren aurkezpena egingo digu, gure On Bosko aretoan.

<https://www.floreaga.eus/2018/01/sergio-gomez/>

- ✓ Ikasturte amaierako jaialdia: Seinua hizkuntza, Marea Urdina, Ausartak. Aurtengo jaialdiaren izenburua “Naizena, zarena, FloreaGARENA”. Bertan landuko ditugun gaiak gizartean gaur egun aurki ditzakegun kondizio sexual, erlijio edota fisiko guztiekiko errespetuzko jarreraren oinarritzen dira.

<https://maxixatzen.eus/azkoitia/1559214781588-floreagako-jaialdia>

- 2019-20 aurreikuspena:

- ✓ **Irailak 30: Gorren Nazioarteko Eguna**
- ✓ **Urriak 2: Garun paralisiaren Nazioarteko Eguna**
- ✓ **Otsailak 28: Gaixotasun arraroen Nazioarteko Eguna**
- ✓ **Martxoak 21: Down Sindromearen Nazioarteko Eguna**
- ✓ **Apirilak 2: Autismoaren Nazioarteko Eguna**

Hauek landu ahal izateko, beste urte batzuetako bideoak eta fundazio ezberdinek, urteko ospakizunerako sortutako berriak erabiliko ditugu. Egindako ekintzek iruzkin eta loturak bidaliko dizkizuegu.

Gure konpromisoa, orain arteko, sensibilizazio lanetan jarraitzea da eta dituzuen proposamenak entzun eta aurrera eramateko ahaleginean, zuekin bat egitea.

Azkoitian, 2019-ko ekainaren 12an

Floreaga Salestar Ikastetxea

ZIURTAGIRIA

Adriana
Arana
Irene